

ALTZO / Enkarni Genuaren Txotxongilo taldea gaur arratsaldean

ALTZO. DV. Aste honetarako eta hurrengorako hainbat kultur ekitaldi antolatu dira Altzon. Horietako lehena gaur bertan izango da, hurrei zuzendua.

Izan ere, Altzoko Udal Liburutegiak antolatuta eta Kutxak sustatua, Enkarni Genuaren Txotxongilo taldeak emanaldia eskainiko du gaur 17:00etan Lizarbeko ezker aldeko gelan. Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan? izeneko ikuskizuna eskainiko dute.

Toti Martinez de Lezea

Ostiralean, berriz, Toti Martinez de Lezea idazlearekin solasaldia izango da Udal Liburutegian 18:30ean.

Azkenik, datorren asteazkenean, hilak 25, Nork bere burua motibatzearen garrantzia izenburu duen hitzaldia izango da 17:00etatik aurrera, Lizarbeko ezker aldeko gelan